

# DIRU SARRERAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure enpresarentzat ezinbestekoa da diru sarrerak izatea eta horretarako gure bezeroak hasieran tamainu txikiko eskaerak egingo dituzte eta denboraren poderioz, tamainu handiagoko eskaerak egingo dituzte. Azken eskaera hauek errentagarriagoak izateko gure enpresara harpidetuko dira, hilabeteroko tasa ordainduz. Gure enpresara harpidetzerakoan, hilabetero gure produktu kaxa bat jasoko dute.

**Harpidetza-prime**n barruan hiru harpidetza mota izango ditugu:

- Harpidetza simplea: Honekin, hilabetero hainbat produktutan deskontuak izango ditu(10 euro).
- Premium harpidetza: Harpidetza honekin, deskontuez gain, hilabetero gure produktuen kaxa bat bidaliko diogu(30 euro).
- XL harpidetza: Hau handiena da eta izugarritzko deskontuak eta kaxa handi bat bidaliko diogu(60 euro).

Honekin gure bezeroek “Premium harpidetza” hartzea lortu nahi dugu. Horretarako, harpidetza-simplea oso eskasa egin dugu eta XL harpidetza ,beriz, handiegia eta oso garestia.

Harpidetza primez gain publizitatearen bidez ere dirua lortu nahi dugu eta horretarako gure enpresaren publizitatea jarriko dugu interneten, gehien bat sare sozialetan.

Azkenik, aktiboaren salmentaren bidez gure diru sarreren gehiengoa lortuko dugu produktuen salerosketen bidez.